

SUSTAPEN PLANA

Euskadiko
Elikagaien
Industria

2020

1. Sarrera
2. Sustapen Planaren helburua
3. Estatuko zein nazioarteko azokak
4. Parte hartzeko asmoa eta beste helmuga interesgarri batzuk
5. Parte hartzeko baldintzak
6. Azoken egutegia
7. Enprekin harremanetan egoteko tresna

SUSTAPEN PLANA 2020

Euskadiko
Elikagaien
Industria

2020 Sustapen Planaren SARRERA

Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saitetik 2020rako aurreikusitako Sustapen Planaren gure proposamena igortzen dizuegu, aurrerapen gisa.

Dokumentuak **Euskadiko Elikagaien Industriaren 2020rako Sustapen Plana** definitzen du, hau da, 2020ko ekitaldian garatuko diren sustapen ekintzak zehazten ditu.

2020rako Sustapen Planaren HELBURUAK

1. Euskadiko elikagaien industriako produktuak sustatzea.
2. Azken urteetan sustapen ekintzak egin izan diren merkatuetan presente egotea bultzatzea, sektoreak eskatutako formatu berri interesgarriak gehituta.
3. Euskal enpresei nazioartera zabaltzen laguntzea.
4. Estatuan egon daitezkeen merkatu berriak irekitzea esportatzen hasi nahi duten enpresa txikientzat.

SUSTAPEN PLANA 2020

Euskadiko Elikagaien Industria

Estatuko zein nazioarteko AZOKAK

Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak, HAZI Fundazioaren bitartez, estatuan eta nazioartean egiten diren elikagai eta edarien azoketara joaten jarraitzearen aldeko apustua egiten du. Ondoren aipatzen diren azoketara joango gara, betiere izena ematen duten enpresen kopurua bertan parte hartzea justifikatzeko nahikoa bada.

- **Barcelona Wine Week–Bartzelona** (Edariak): 2020ko otsailaren 3tik 5era

Bartzelonako Firak, Alimentaria Exhibitions sozietatearen bitartez, ardoaren inguruko erakusketa berria izango du, Barcelona Wine Week izeneko. Horren bidez, Espainiako mahastizaintza eta ardogintza sektoreak duen indar ekonomiko, sozial, kultural, gastronomiko eta internazionala bistaratu nahi du. Azoka, bi urterik behin egingo dena, Alimentaria azokan ardoari eskainitako espazioa (Intervin) emantzipatzetik jaio da eta Montjuïc-eko esparruan egingo da. Erakusketak 600 bat upategi batu nahi ditu, eskualde ezberdinetakoak eta J.I. duten eta ez duten ardoak, ardo ekologikoak, biodinamikoak, destilatuak, besteak beste.

- **Wine Paris** (Edariak): 2020ko otsailaren 10etik 12ra

2019tik batera egin ziren Parisen Vinisud eta Vinivision azokak, ekitaldi berri bat sortuz, Wine Paris. Hemendik aurrera urtero egingo da Parisen. Wine Paris azokaren lehen edizioa ardoaren profesionalen erreferentziazko ekitaldi bihurtu da. 26.700 ardo-profesional bertaratu ziren, haien artean %30 erosleak eta nazioarteko komunikatzaileak. Ameriketako Estatu Batuak, Belgika, Erresuma Batua eta Herbehereetako bisitariak izan ziren nagusi, guztira joandakoen %51a.

- **Prowein – Düsseldorf** (Edariak): 2020ko martxoaren 15etik 17ra
- **Gourmets – Madril** (Elikagaiak eta edariak): 2020ko martxoak 30-31 eta apirila 1-2
- **Alimentaria – Bartzelona** (Elikagaiak): 2020ko apirilaren 20tik 23ra
- **Conxemar – Vigo** (Elikagaiak): 2020ko urria
- **Sial – Paris** (Edariak): 2020ko urriaren 18tik 22ra

SUSTAPEN PLANA 2020

Euskadiko Elikagaien Industria

PARTE HARTZEKO asmoa eta beste helmuga interesgarri batzuk

- Garrantzitsua da jakitea ea **enpresek azoka horietara joateko asmorik** duten, horrela kontratatu beharreko metro karratu kopurua aurreikusi dezakegu eta.
- Garrantzitsua da, halaber, jakitea ea azoka edo helmuga komertzial hauez gain **beste ekitaldi edo herrialderik interesatzen zaizuen** eta zuen plan komertzialetan lehentasunezko zat sartu duzuen.

Ekarpen guztiak helbide honetara bidali beharko dira: calimentaria@euskadi.eus **2020ko ekainaren 28a** baino lehen.

Parte hartzeko BALDINTZAK

Jarduera hauetan parte har dezakete soil-soilik egoitza soziala Euskal Autonomia Erkidegoan duten enpresa ekoizleek, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren **Elikadura Industrien Erregistroan** izena emanda badaude. Azokan Euskal Herrian fabrikatutako produktuak baino ezingo dira erakutsi. Ezin izango dira, inola ere, beste Autonomia Erkidego batzuetako produktuak aipatu, ezta aurkeztu ere.

SUSTAPEN PLANA 2020

Euskadiko Elikagaien Industria

Hona hemen 2020ko Sustapen Planaren dokumentu honetan planteatzen diren ekintzetan parte hartzeak dakarren kostua finantzatzeko dirulaguntzetarako egingo den sailkapena. Sailkapena behar bezala esleitzeko, ezinbestekoa izango da enpresek euren lehengaiaren jatorria egiaztatzea. Horretarako, zinpeko deklarazio bat aurkeztu beharko dute azoka bakoitzean izena ematean.

ENPRESEN SAILKAPENA:

1. motakoa

Batez ere Euskadiko lehengaiz hornitzen diren enpresak. Enpresak produktuaren jatorria egiaztatu beharko du.

Eusko Jaurlaritzak emango dien dirulaguntza %70 arterainokoa izango da.

2. motakoa

Euskadin behar duten lehen sektoreko produkzioerik egon ez, eta Euskaditik kanpoko lehengaiak erabiltzen dituzten enpresak.

Eusko Jaurlaritzak emango dien dirulaguntza %50 arterainokoa izango da.

3. motakoa

Batez ere Euskadiko lehengaiz hornitzen EZ diren enpresak, Euskadin behar duten lehen sektoreko produkzioa egonda ere.

Eusko Jaurlaritzak emango dien diru laguntza %30 arterainokoa izango da.

SUSTAPEN PLANA 2020

Euskadiko Elikagaien Industria

2020 azoken EGUTEGIA

Urtarrila						
AL	AS	AZ	OG	OR	L	I
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

Otsaila						
AL	AS	AZ	OG	OR	L	I
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	

Martxoa						
AL	AS	AZ	OG	OR	L	I
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30	31					

Apirila						
AL	AS	AZ	OG	OR	L	I
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30			

Maiatza						
AL	AS	AZ	OG	OR	L	I
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31

Ekaina						
AL	AS	AZ	OG	OR	L	I
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30					

Uztaila						
AL	AS	AZ	OG	OR	L	I
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

Abuztua						
AL	AS	AZ	OG	OR	L	I
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30
31						

Iraila						
AL	AS	AZ	OG	OR	L	I
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30			

Urria						
AL	AS	AZ	OG	OR	L	I
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	

Azaroa						
AL	AS	AZ	OG	OR	L	I
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30						

Abendua						
AL	AS	AZ	OG	OR	L	I
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

 Gourmets 2020
 Alimentaria 2020
 Sial 2020
 Conxemar 2020 (behin behineko datak)

SUSTAPEN PLANA 2020

Euskadiko
Elikagaien
Industria

Enpresekin HARREMANETAN egoteko tresna

2020 urterako proposatzen diren jarduerekin lotura duten jakinarazpen guztiak eskuratzeko esteka hau erabili daiteke: www.euskadi.eus/elikagaiensustapena.

Helbide horretan azoka bakoitzaren deialdia zein egoeratan dagoen eta deialdi bakoitzari dagozkion izena emateko epeak azaltzen dira.

PELI MANTEROLA

Eusko Jaurlaritzako Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaria.